

Nik ezagutu nuen

"PLAZA DE LA CONSTITUCION"

1928. urtean

(Orain Herriko Enparantza)

XABIER

1993.go urtarrillaren bigarren eguna zen, gure erriko enparantzan zarberritzeko lanak asi zirala, eta amabost illabete ondoren berauek amaitutzat eman ziran.

Bertan egin diran aldaketak (naiz denen gustokoak izan ez) asko izan dira: bertan ziran ubideak, argindar, gas, telefono, denak lur azpitik bideraturik, artzabal edo arrizko baldosez orniturik enparantza guztia. Madalen kaleko zati batek eta berdin Mikelazuloko atariak ere apaindu eder bat artu dute, eta tarteak berrikuntza baten bearrean daude, guztiak onela itxura berdina artu dezan.

Eta, au dela eta bururatu zait nere ume denborako "Plaza de la Constitución" nolakoa zen azaltzea: orduan giñan auzoko eta bertako biztanleak, bertan ziraden denda eta jabeen izenak. Lantxo au osatzeko bear izan dituan xeetasun geienak udaletxeko agiritegian arkitu al izan ditut.

Enparantza onek izen geiago izan zituan; ezagunenak izanik, lan onen idazburuarenaz gainera: Plaza Mayor, Plaza

Principal, azkenekoa izanik General Molarena, orain daramarenekin amaituaz.

Eta asi nadin zuri irakurle nere oroimenen berri emanez: naiz eta sotoa eleiz kalekoa izan, bere alderdi eta balkoi bereziena enparantza aldera ematen dio Txikitoneko izenarekin ezgutzen dugun etxea aurkitzen da lenengoz. Etxe bertan zarberritzeko lanak egin dituzte, eta azalketa aipagarri batzuek izan dira. Bertan azaldu diran anagrama, leio eta ateak ikusita, edestilariak diotenez, erriko etxerik zarrenetakoa omen da. Erabat txukun eta polita gelditu da, bañan gure erri onetan gauza askorekin bezala, gaumargolariak laister bere trebetasunak azalduz, ain txukun zegoen orma margotuta utzi dute.

Txikitoneko ostatua izenarekin ezagutzen genuen ostatu txiki eta errikoi ura. Bertako jabea Juan Cruz Patarrieta Calderon zen, gizon aundixamarra zalako Txikito esaten omen zioten, ondorenerako izena onela geldituaz. Bere emaztea Nemesia Ulazia eta semealabak Mercedes, Gloria, Elena eta Salvador bizi



ziran berarekin. Etxe orretan ainbat denda eta era askotakoak izan ziran, bañan urte artan "Churrería La Marina" izeneko zegoen, aipagarria eta gure errian lenengoa. Juan Fernandez txurreroa zen bertako jabea.

Ondoko etxearen tartean uzkeru edo nitxo bat ikusten da oraindik, baiñan nik ez dut bertan zegoen iturritik urik ateratzen zala ezagutu. Orduan bi alturakoa zen etxea, orain laukoa izanik. Au ere ostatu eta erari denda zen, Francisco Zuloaga, Josefa Antonia Lasa, Maria Mercedes eta Mari Carmen sendiko zituelarik.

Eta goaz orain, orduko Periko Konfiteruaren etxearekin. Etxe onek sarrera Beko kaletik dauka, bañan erakustokiak eta dendak enparantza aldera ematen dute. Bertan zegoen orduko gure goxotegi eta amets lekua. Pedro Ignacio Jauregi Etxeberria zan gure Periko famatua. Celedonia Etxeberria bere emaztea, Luis (Jautarkol, olerkari ospetsua), Maria eta Modesto sendiko izanik.

Ona emen, non azaltzen dan Jautarkolen izena, olerkari goi mailakoa, Erreenteriaren maitale sutsua eta bere erritarrek ain gutxi oroitua. Ez al du geiago oroitzea merezi gure agintarien aldetik. Nik baietz uste.

Gozotegiaren ondoan zapategi lantegi bat zegoen, Valladolideko Portillo erritik etorritako Jacinto Martin Molinares, bere emazte Hipolita Perezekin etorria, gero emen jaiotako semeak zituzten, Luis, Puri, Ramon, Julio eta Angel. Magdalen kalean bizi izan ziran, naiz denda or izan.

Eta, etxe berean irugarren denda, Almacenes Merkia izeneko zana. Arropa denda errikoia. Bere iragarkian, elburutzat au agertzen zan: "El lema de esta casa es ganar poco para vender mucho" (ez zuen oraingo askoren antzik). Fermín Martínez Mendiguren zan bertako nagusia, Lucía Poza Arza bere emaztea, Julita, Maria Teresa, José Mari eta Esther seme-alabak.

Jarrai dezagun, orain "Bar La Rosa" dagoen etxera. Orduan sotoa Beko kaletik zegoen, eta etxe azpia batetik bestera "Talleres de bordado de la fábrica de tejidos de lino y talleres de Echeverria y Cia"-k osatzen zuen. Bertan, ogeitamar bat andere lanean aritzen ziran, Jesús Mari Etxeberria Timoteo bere semearekin fabrika orren buru izanez. Lantegi ura, orain Oñatiarra taberna dagoen tokian, aurkitzen zan eta beste ainbat bezela desagertua. Jesús Mari Etxeberria 1902-1906 bitartean erriko alkatea izandu zan.

G. URTIAGA
RELOJERIA - OPTICA - BISUTERIA - GRABADOS
¿Dónde comprar el reloj más fino y más barato que nadie? ¡En la RELOJERIA URTIAGA!
¿Dónde hacen las mejores composuras en Relojes y joyas, con toda garantía?
EN LA RELOJERIA DE LA PLAZA PRINCIPAL
En objetos para regalos, precios sin igual PLAZA PRINCIPAL, 9 - RENTERIA

BODEGAS NAPARTARRA
— DE —
JOSÉ OLASCOAGA
Los mejores vinos de Navarra y Rioja
Comidas económicas / Café y Licores
Plaza Principal 10 RENTERIA

ESTANCO Y PAPELERIA
MENAJE DE ESCUELAS
— — —
VDA. DE ANDUEZA
Plaza de la Constitución RENTERIA

Goazen beste aldera. Banco Hispano (orduan San Sebastián) dagoen etxean, Banketxea izan aurretik kafetokia izandu zan Arrieta-Olano sendiak bertako jabe izanik; etxe onen lenego bizitzan Etxeberria Olaiz sendia bizi zen: Dorotea Olaiz Ameztory ama alarguna, Feli, Mari, Gloria eta Angel seme-alabak. Angel semea, abeslari aipagarria izandu zan, Italian eta beste zenbait erritan abestutakoa. Bere erriaren maitalea, urte aietan ez zen beinere falta izaten, bere abes saioa Magdalen egunean, Ave Maria entzun araziz meza nagusiko denboran. Bañan 1929. Urrillean eriotzak bereganatu zuan, bere ametsak egi biurtu gabe utzirik.

Enparantzán dagoen etxerik txikiena da orain gogora dakartena, Hoyos elektrogallu dendakoa gaur egun. Urte aietan J. Urteagaren bitxitegi, ordulari eta optika denda zan, Erreenteriako bakarrenetakoa. Bigarren solairuan Merkia dendakoak bizi izan ziran.

Orain lau bizitzako etxea dagoen tokian, bikoa zegoen orduan. Bertan "Casa del Pueblo" arkitzen zan, Papelerako langile geienak bazkide izanik. Oroitzen naiz, "Bermeana" izeneko taberna erriko bat bazala ere, Bernardina Elorza eta bere alaba Higinia Azpeitia jabeak izanik. Pepe eta Felix, azkenekoaren semeak oso lagunak izan nituen. Urte aietan, Bodega Napartarra izan zan bertan, José Olascoaga nagusia zuelarik.

Eta enparantza onetan zegoen etxerik txukun eta politena zan (eta orain ere alde alde) estankoa eta notario etxea zana. Gaudioso Zelaia Zabala erriko agiri paperak siñatzen zuen jauna, Eguarri jaietan bere oparia ume giñan guztientzat gabon egunean balkoitan botatzen zituan, bertan biltzen giñaden guztien pozerako.

Estankoa, berriz, orain dala denbora gutxi arte iraun du. Bañan ordukoak bazuan bere berezitasuna, bertan tabako mota guztiaz gain, ikastola eta bulegorako tresna eta paper mota guztiak aurki zitezken. Taberna antzeko txoko bat zegoen bertan, eta goiz mezetara etortzen ziranak eta goiz langilleak (orduan uxuala esaten zioten) bere tragotxoa egiten zuten, galleta batzuz lagun-

LA MUERTE DE ANGELITO ECHEVERRIA

EL ARTISTA QUE LLEGO A VER LA META DE SUS SUEÑOS...



Angelito "gishajá". ¿Quién había de decirle que transcurrido un año, íbamos de dedicarle en nuestra Revista unas notas necrológicas...

Y así ha dispuesto la Providencia que ocurrieran las cosas. El meritorio artista renteriano, cuyas cualidades profesionales y de carácter particular nos refería con el entusiasmo de su ilusionada juventud hace doce meses justos, yace en este momento en un humilde rincón de un cementerio parisiense.

Su alma, alma vasca, modesta y laboriosa, voló a las regiones ideales, donde, seguramente, habría encontrado la compensación a todas las inquietudes y ansiedades por que atravesó durante su breve permanencia en la prisión del cuerpo de Angelito.

Angel Echeverria había comenzado, con toda ilusión, la senda del arte, con esa ilusión de un amor puro e irreprochable. Y había hallado que la senda que él supuso florida y placentera, estaba cruzada de obstáculos y dificultades, de abrojos y de espinas... Sin embargo, enamorado con el alma de aquel ideal, continuó su ruta, cada vez más dificultosa y pendiente...

La ascensión, sin embargo, no le fatigaba el alma; cada nueva dificultad, el alma valiente y fuerte de Angelito se creía; se agrandaba, se agigantaba... Sin asomo de un traspaso, de un titubeo... Y seguía, seguía siempre, con la esperanza brillante de un iluminado, plaída y sacada de ideal, creía haber realizado el sueño de su existencia... el cuerpo débil y torturado por los vaivenes de la vida fue fácil presa para la fría guadaña de la Muerte acechante...

Angelito supo sacrificarlo todo en aras de un ideal. Fue un héroe de su arte, divino y bellísimo, pero engañado... Y por su arte supo morir, con la sonrisa en los labios... Sonrisa de esperanza, de consuelo, de íntima satisfacción, porque en sus febriles sueños de artista había divisado la meta codiciada.

Sonrisa de consuelo. ¡Bravo fin el del desventurado Angelito! Descansa en paz, nuestro querido e inimitable amigo y se sirva depararnos nuestro uno o postrero cajetillo senajale.

1929

duz, beraua kentzeko. Andres Andueza alarguna Dolores Ugarte eta bere alabak Emiliana, Evarista eta Mariak osatzen zuten sendi ura.

Orain Udaletxearekin goaz. Orduko alkatea, Carlos Itxaso Asu genduen, Luis Urreztieta idazkaria izanik, etxezaina Alberto Elorza genduen, bere emaztea Josefa Sein, eta José, Sabas, Pedro, Manolo, Eushebi, Marcelino eta Alfonsorekin sendia osatuaz. Udaletxean zortzi bat lagun izaten ziraden bulego lanetan, izan ere orain baiño biztanle gutxiago giñan.

Udaletxeak aldakera asko izan ditu bere barruan, mota geiagotako lanak badira orain, eta guztiak ondo eramateko bear ere bai. Orain erriko aramarria dagoen gainean "Plaza de la Constitución" izena garbi azaltzen zan. Kontsejupea gure jolas lekua zen.

Udaletxe ondoan, espetxeratu eta atzerrian dagozten argazkiarekin osatzen dan orma etxe eder baten zati zan. 1981. urtean goitik bera erori zan eta ordutik onera, berreun ta geiago neurkin duen lekua ezer egin gabe arkitzen da. Beroren jabe Udala da eta uste bat zerbitzu ohea atera lezaioke erraizentzat. Bertan Juan Pelloneko arropa denda aurkitzen zan, Juan Pedro Garaialderena ain zuzen. Bere emazteak Juana Josefak eta Asuncion, Magdalena eta Nikolasak laguntzen zioten. Orain festa burutan taberna bezala eta erakusketa leku erabiltzen dute A.E.K.-ko ikastolakoak, beren elkarterako txanpon batzuek ateriaz.

Eta nere jaiotetxea, naiz Santa Maria Kaletik sarrera izan, balkoi nagusia enparantzara dijoa. Beronen azpian, orain zapata denda dagoen ortan, garai artan dende txiki bat zeukatzen Juan Lasak eta Maria Olaziregik, eta auek utzi zutenean, Papelerako langileen elkarteak janari denda bat jarri zuen. Miguel Urkola eta bere alabak Asunción eta Juli egiten ziren dendaren kargu. Nere ama Brígida eta anai arrebak Pilar, Mayi, Sabin, Mirenekin batera osatzen genduen lendabiziko bizitzan zegoen sendia.

Naiz eta enparantzako izan ez, beti partaide izan da Kanttaleneko ertza bere egiturari. Lendabiziko bizitzan Txikitoneko ostatuaren gelak zegozten. Eta bein baiñan geiagotan ikusi izan nituen, Erreterira festa deboran etorri ziraden toreatzailleak bertan jaxten zirala.



Eta guztiak zaintzen, gure Eleiz nagusia, bere babesean aurkitzen bada leku au, erri guztia bezela. Bera izan da enparantza onetan egin oi diran festa giroko eta ez girokoak jasan bear izan ditunak. Zenbait oroitzapen etortzen zaizkit burura, urte aietan bizi izan genituen pakezko eta anaitasunezko egunak, eta ez oraingo burrunda eta izkanbillez betetakoak, bertan izaten bai dira era guztietako eginkizunak, bai gaitzapenekoak, eskubide eskaerak, festa asierak, gau eta egunezko borroka giroko izkanbilla. Auen antzekoak ez ziraden gure denborako ekintzak, jolas leku, dantza leku, bertan lenengo ikas saioak egiñik.

Urteak aurrera doazen bezela, gure erria munduko aurrerapenei jarraituz, era bateko aldapenaren jabe egi gera, eta bizitzeko mugi aldi eta azkarrago bizi naia artu degu. Naiz enparantzako egintzak urtean zear atsegina ez izan, amabost illabeteetan eskabadora, konpresorioak eta langileriak ateratako burrundak direla medio, ainbateko mesedea ere ekarri digu, bertan bizi geranontzat. Quinbide alde edo "zona peatonal" izendatu dute, erri barrutiko beste kale batzuen antzera, eta egunez eta gau bezain, berebil eta motorran soñurik ez degu ainbat entzuten; onela denbora aietako antz apur bat arturik, baiñan egun eta gau batzutan, agintariekin sortzen diraden eztabaidak eraginda, tirokada luzeak izaten dira. gure pake giro erahat apurturik

Eta ona emen, nere asmoari bukaera eman eta Oarso aldirian nere oroimenak azaldu. Poz artuko nuke zerbaiterako balio izatearekin. Badakit tartean akats batzuek izango dirala, baiñan ala balitz, ez dira asmo txarrek egiñak, asmo onez egiñak baizik.

*Agur nere enparantza maite
aspaldi ezagutua.*

*Lenago zarra izandu arren
orain zaude berritua.*

*Beti-izan zera erriarentzat
ekintza-askoko lekua.*

*Izan dezagun leno genduen
zuretzat begirunea.*

*Artzabal Berrietan sortuaz
ain bear degun pakea.*
